



Oinak izoztuta iritsi da Pasaban kanpalekura

ERITETXERA ▶ Oiarzabal eta bera bihar espero dituzte Zaragozako eritetxean, izozketak sendatzeko

LUZE ▶ Hogeita lau ordu behar izan zituzten K-2ra igo eta laugarren kanpalekura jaisteko ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

28 herrien informazio turistikoa atera dute

Informaziorik «osatuen» biltzen du liburuxkak ▶ 2

ALEGIALDEA ▶

Abuztuko hainbat jai egitarau, osatuta

Orendainen 8an, Umeen Eguna ▶ 5

LEITZA ▶

Plazaola erabiltzeko araudia kalean da ▶ 7



Jubilatuek bere eguna izan dute Santio jaietan

VILLABONA ▶ Atzo jubilatuen eguna izan zen Santio jaien egitarauaren barruan. Urtero bezala, eskulanean erakusketa antolatu zuten Berdura plazan —argazkian—. Makilak, margolanak, gantxilozko gauzak... ikusteko aukera izan zuten herritar guztiek. Ondoren jubilatuen bazkaria izan zuten Txermin ikastolaren itza-

lean, udal ordezkariak bertan zirela. 250 bat lagun elkartu ziren bazkari horretan. Dantzaldia ere izan zuten. Jubilatuez gain, haurrek ere izan zuten zer ikusi: eskulanak, Sum magoa... Eta helduentzat joko garbi pilota partidak eta Eresargi txiki abesbatza-
ren kantaldia izan zen. Gaur ez da ekitaldirik. **GARAZI AZKUE** ▶ 4



TURISMOA ▶

'Tolosaldeko gida' argitaratu du Tolosaldea Garatzen-ek

Eskualdeko 28 herrien informazio osatua jasotzen du liburuxkak; hiriburuak salbu, horrelako gida argitaratu eta zabaldu duen lehendabiziko eskualdea da Tolosaldea



Belauntzako ikuspegi bat; eskualdeko hogeita zortzi herrien informazio zabaldu jasotzen du gidak. HITZA

LEIRE MONTES

Tolosaldeko gida kaleratu berri du Tolosaldea Garatzen S.A. eskualdeko garapen agentziak. «Gaur egun arte argitaratutako informazio turistikorik osatuena eta maneiagarriena» biltzen du liburuxkak, hogeita hamabi orrialdetan.

Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzeneko lehendakariaren esanetan, gida produktu berria da Tolosaldean, baina baita Gipuzkoa ere: «Hiriburuak kenduta, era masiboa informazio turistikoa osatuen duen liburuxka argitaratu eta zabaldu duen lehendabiziko eskualdea da Tolosaldea. Hara egon gaitezke, beraz».

Gainera, Gipuzkoan herri gehien hartzen dituen eskualdea da: hain zuzen ere, probin-

tzia osatzen duten 88 herrietatik 28 Tolosaldeari dagozkie.

Eskualde guztiko informazio osatua aurkituko du turistak *Tolosaldeko gida*-n. «Gipuzkako bihotzean kokaturik, Tolosaldea Aralarko parke naturalaren eta Ernio mendigunearen artean dago, eta bertan bi gauza nahasten dira: batetik mila biztanlez beheko hogeita herri baino gehiagoren xarma, eta Tolosako merkataritza eta kultura mugimendu handia bestetik», azaldu dute eskualdeko garapen agentziako ordezkariak.

«Eskualdea ezagutzera ematea» da gidaren helburua. Baina, oinarritzko helburua ere ezin dela ahaztu azpimarratu du Goikoetxea lehendakariak: «Tolosaldearen aberastasuna ezagutzera eman nahi dugu han-hemenka. Baina ardatz nagusia kontuan hartu behar dugu beti: eskualdean enplegua sustatzea da gure xedea».

Gida, atalez atal

Zenbait ataletan banatu dute gidako informazioa. Liburuxka ireki eta berehala, sarrera labur batekin, aurkibidearekin, Tolosaldeko festekin, gertaera interesgarriekin eta telefono zenbakiarekin egingo du topo turistak.

Ezagutu Tolosaldea izeneko atala aurkituko du jarraian;

bertan, eskualdearen ezaugarri esanguratsuenak jaso dituzte, eta Tolosaldea osatzen duten 28 herrien aurkezpen laburra.

Natura atalean, ondoren, eskualdean egin daitezke mendi ibilaldiak zehaztu dituzte, eta zenbait datuarekin osatu, gainera: txangoaren zailtasuna, distantzia, denbora, desnibela...

Tradizioak eta kulturak ere badute lekua *Tolosaldeko gida*-n. «Mendetan bizirik eusten jakin izan duen ohiturak eta ondare historiko zein kultural aberatsa ezagutzeko aukera eskaintzen du Tolosaldeak». Besteak beste, museoen, artisautearen, arkeologia ondareta historiarreko kokalekuen, artearen, Donejaue bidearen, baserrien, jaien, tradizioaren, herri kirolen eta azoken inguruko informazioa jaso dute atal honetan.

Gastronomia arloan, bestalde, eskualdeko produktu tipikoen informazioa ematen du gidak. Gainera, 70 jatetxeren zerrenda ere aurkezten du, xehetasun handiz: helbidea, telefonoa, edukiera, berezitasuna, menua ala karta eskaintzen duen, prezioa... Hainbat gomendatzen berri ere ematen du.

Jatetxez gain, aterpeen, hotelen, ostatu eta pensioen eta landetxeen zerrenda jasotzen du gidak; bakoitzaren ezauga-

FITXA ▶



Izenburua. *Tolosaldeko gida. Atalak.*

- ▶ Festak; gertaera interesgarriak; telefono zenbakiak...
- ▶ Ezagutu Tolosaldea. Herriz herri.
- ▶ Natura.
- ▶ Tradizioa eta kultura.
- ▶ Gastronomía.
- ▶ Ostatuak.
- ▶ Merkataritza ibilbidea.

Argitaratzailea. Tolosaldea Garatzen S.A. eskualdeko garapen agentzia.

Non lortu? Tolosaldea Tour eskualdeko turismo bulegoan (Santa Maria plaza, 1. Tolosa. 943 69 74 13). Pixkanaka-pixkanaka, eskualdeko beste hainbat puntutan ere eskuragarri jarriko dute.

rri garrantzitsuenak ere zehazten ditu.

Azkenik, merkataritza ibilbidea «eskualdean bertan» proposatzen du liburuxkak: «Tolosaldean merkataritza eta industria bizitasun handiko landa eskualdea da. Bi gune garrantzitsu ditu: Tolosa eta Ibarra batetik, eta Villabona eta Zizurkil bestetik. Horietan, eskura dago lehen mailako merkataritza eskaintza».

Oraingoz, Tolosaldea Tour eskualdeko turismo bulegoan jaso daitezke gida, doan (Santa Maria plaza, 1. 943 69 74 13). Pixkanaka-pixkanak, eskualdeko hainbat puntutan ere eskuragarri egingo da; besteak beste, udalak, saltokiak, jatetxeak eta ostatuak.

TOLOSA ▶

Arantzazuko erromesaldia izen-ematea

Urtero moduan, aurten ere Tolosatik Arantzazura erromesaldia egingo dute hilaren 31n, ostirala. Joan nahi duenak izena eman dezake dagoeneko; horretarako, San Frantzisko elizako atarira jo behar du.

TOLOSA ▶

Gerontologikoen protesta, Donostiara

Tolosako Zentro Gerontologikoko —Euskal Herria plaza— langileen eta egoiliarren aldarrikapenek eta aferak aurrera darrai. Bihar, beren protesta Donostiara eramango dute. Gizarte Politika diputatu Esther Larrañagari «erantzun eta informazio eske» jarraitzen dute zentrokoek eta «ezjakintasuna eta egoera salatuzko» Foru Aldundiaren aurrean —Gipuzkoa plaza— kontzentrazioa egingo dute. Autobusa antolatuko dute Donostiara joateko; 10:00etan da hitzordua, egotzaren aurrean, autobusa hartzeko. Joan nahi duenak, dena den, izena eman behar du aurretik; gaur da horretarako azkeneko eguna, zentroan bertan.

TOLOSA ▶

'Txapela'-ren oroimenezkoan finalerdiak, gaur

Txapela-ren oroimenezko Paleta Txapelketan finalerdiak jokatu dituzte gaur, 19:00etan, Berazubiko frontoian. Astelehenean, lehendabiziko partiduan, Oterminek eta Garcesek osatutako bikoteak 25-30 galdu egin zuten Renobalesen eta Aldazabalen aurka. Beraz, azken bikote hori sailkatu zen finalerdietarako. Garmendia-Maizak, bestalde, zuzenean finalerdietan hasiko dute txapelketa. Atzo, erredakzio hau ixterakoan, jokatzeko ari ziren beste bi sailkatze partidak: Zabaleta-Azpeztetgia/Lakunza-Urdanpilleta, eta Yugueiros-Artola/Begoa-Goitia. Lehendabizikoa partida irabazi zuen bikotea Renobales-Aldazabalen aurka ariko da gaur, finalerdietan; ondoren, Garmendia-Maizak atzoko bigarren partida irabazi zuen bikotea izango dute aurkari.

TOLOSA LANTZEN S.A.

AKATS ZUZENKETA

Gipuzkoako Aldizkari ofizialean (137. zk. 2004-07-20), Tolosa Lantzen enpresak bidalitako iragarki bat argitaratu zuten, "Tolosako Usabal kiroldegiko futbol zelaiko obrak" ezeztatuzko.

2. puntuan, "Lizitazioaren zenbatekoa"n, 1.039.580,83 € jartzen duen lekuan, 1.192.593,30 € jarri behar da.

Ondorioz, eskaintzak egiteko epea ere zabaldu egiten da, 2004ko abuztuaren 9ko 13:00ak arte.

Tolosa 2004ko uztailaren 26an
TOLOSA LANTZEN S.A.ko Lehendakaria

GAU GIRO ▶

Bandaren dantzarako doinuak

Etzi gauean ohiko San Inazio kontzertua eskainiko du plaza Berrian

ERREDAKZIOA

Gau Giro programazioarekin jarraituz, Tolosako Musika Bandak ohiko San Inazio kontzertua eskainiko du etzi gauean. Emanaldia plaza Berrian izango da, 23:00etan.

Urte batzuk badaramatza Musika Bandak berezitasun bat erantsiz kontzertu honi: garai batean dantzarako erabiltzen ziren doinuak interpretatzen ditu San Inazio bezperan. Horrela, makina bat pasodoble, bolero, tango, *twist*, *corrido*, fandango, arin arin... en-

tzun eta dantzatu ahal izango dituzte udako gau giro bikaina aprobetxatuz, kalera ateratzea erabakitzen dutenek.

Urtero jende gazte eta heldu ugari biltzen da kontzertu honetan. Baina batez ere adin batetik aurrerakoek oroimen bereziak izango dituzte Luis Aguileren *Cuando sali de Cuba*, Luis Marianoren *C'est magnifique* edo Duo Dinamicoren *Bailando el twist* entzunez, *Adios muchachostangoa*, *El reloj boleroa* edo *Llora Jalisco corrido* dantzatzuz. Horiekin batera, oso ezagunak diren *Tequila*,

Gotas de lluvia, *Acapulco* edo *Fiesta en la caleta* eta *Campañera* pasodobleak interpretatuko ditu Musika Bandak etzi gauean plaza Berrian, besteak beste.

'San Inazio martxa'

Aipatutako piezekin batera euskal doinuak ere entzun eta dantzatu ahal izango dituzte entzuleek: *Getari* fandangoa eta arin arina eta Tolosan hain ezagun den *la zarrak*—Tolosa CFri eskainia—. Bukatzeko, urteroko ohiturari jarraituz, *San*



Tolosako Musika Banda, etzi Gau Giron izango da. HITZA

Inazio martxa interpretatuko du Bandak, bildutakoek martxa horren letra abesten duen bitartean.

Kontzertu berezia eta entzu-

legoaren gustukoa izatea espero dute Tolosako Musika Bandako partaideek, dantza egiteko gonbite berezia luzatuz aldi berean.

MENDIA ▶

Oinak izoztuta dituela heldu da Pasaban kanpaleku nagusira

Oiarzabal eta biak Zaragozako erietxera eramango dituzte; K-2tik laugarren kanpalekurako jaitsiera gogorra izan dute

IRATXE ETXEBESTE

Helburua lortzeko dakarren poztasunarekin, baina, ezinbestean, eguraldi eta mendien baldintza gogorren menara hasi ziren herenegun Edurne Pasaban, Juan Vallejo, Juanito Oiarzabal eta Mikel Zabalza mendizaleak K-2ko gailurretik jaisten. Hogeita lau orduz egon behar izan zuten ibilian K-2-rako eta handik laugarren kanpalekurako bidea egiteko, eta hotza eta nekea handituz zihola, oztopo handiak izan zituzten laurak beharagoan. Antza

denez, Juanito Oiarzabalekin kontaktua galduta egon ziren beste hirurak ilunpean ordu bete inguru, eta lurrean aurkitu zuten, konortea ia galduta.

Pasabanez eta Oiarzabalek izoztuta dituzte oinak, eta haien egoeraren larritasun mailaren berririk ez da oraingo. Pasabanez Euskal Herrian 17:30ak inguru zirela lortu zuen atzo kanpaleku nagusira heltzea; Oiarzabalek bizpahiru ordu gehiago behar izan zituen horretarako. Kanpaleku nagusira helikopteroa joango da gaur, eta Islamabadera eramango

dituzte bi mendizaleak handik, gero, Zaragozara (Espainia) abiatu eta hango erietxe espezializatu batean izoztuta dituzten oinak artatzeko. Bihar espero dute Zaragozara heltzea, sendagileek oinak behar bezala aztertu, larri ote dauden edo ez jakin eta sendatze bidean ahalik eta azkarren jartzeko. Eguraldiak laguntzen badu izango da hori.

Hala ere, sendagile bat joateko zen atzo Islamabadera bi mendizaleak artatzera; han bertan zen bi mendizaleei lehen azterketa egitekoa. Kanpa-



Edurne Pasaban, K-2n. HITZA

leku nagusira heltzen ziren bezain laster mendizaleen oinei argazkiak atera behar zizkieten, gainera, Zaragozako erietxeko sendagileei e-mail bidez bidali, eta, denbora gehiegi pasatzen utzi gabe, tratamendu egokia jartzeko. Erredakzio hau ixterakoan heldua zen Pasaban kanpaleku nagusira, eta Oiarzabal beharago bidea ari zen egiten oraindik.

Pasabani eta Oiarzabali Kiko Arregi sendagileak aztertuko

HELIKOPTEROZ

Eguraldiak laguntzen badu, Zaragozara eramango dituzte bihar Pasaban eta Oiarzabal izozketak sendatzeko

dizkie oinak Zaragozako erietxera heltzen direnean. Iozketetan aditua da Arregi.

Gainerako biak, ondo

Euskal espedizioko gainerako bi mendizaleak; Mikel Zabalza eta Juan Vallejo, nekatuta, baina egoera onean ziren. Zabalzak eguerdian—Euskal Herrian 12:00ak inguru zirela; Pakistanen hiru ordu gehiago—lortu zuen kanpaleku nagusira iristea, eta Vallejo Oiarzabalekin ari zen jaisten, gas-teztarrari beherako bidea egiten laguntzeko. Bestalde, Oiarzabalek berak egindako telefono deian esan zuen deshidratazio zantzu handiak zituztela mendizaleek, ur askorik ez zutelako edan jaisterakoan.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



VILLABONA ▶ JAIK

Jubilatuen eguna Santio jaietan

Jubilatuentzat eta haurrentzat izan ziren ekintzak atzo Villabonan

GARAZI AZKUE

Santioak aurrera doaz. Atzo izan zuten jaietako hirugarren eguna billabonatarrek. Santa Ana egunaren ostean, jubilatuen eguna etorri zen. Urtero bezala, eskulenen erakusketa antolatu zuten adinduek Berdura plazan: makilak, margolanak, gantxilozko gauzak... denarik zegoen jarritako hamar postuetan zehar.

Herrikoak ziren bertan bildutako artista gehienak, Bixente Garmendia kasuko. Garmendiak margolanak egiten ditu: «Orain bederlatzi urte hasi nintzen honetan, jubilatutako nintzean». Izan ere, jubilatutako askok hartzen dute eskulenen egiteko joera erretiratu ostean. Garmendiaren esanetan, «bentaja handia egiten du horrelako zerbitu egiteak, denbora libre ugari dut orain eta ederki etorri zait». Ez da erakusketa batean parte hartzen duen lehen aldia, izan ere, egunaren ostean Garmendia eta Gurea zinemako erakusketa ere jarri zituen bere lanak.

Gregorio Caballerok eta Felix Cristobalek ere beraien lanak jarri zituzten, postua elkarbanatu zuten euren egurrezko gauzekin, batak bi hilabete daramatza makilak egiten eta besteak berriz, urte ugari.

Caballero eta Cristobal ere bat datoz Garmendiaren iritziarekin, «erretiratu guztiei zerbitu egin dezaten animatuko nituzke, denbora libre asko dugunez ongi etortzen da». «Jende askok ez dakiela esaten du hasieran, baina ikasi egiten

da, benetan behar dena ilusioa da», gaineratu du Cristobalek.

Baina eskulangileez gain jende ugari bildu zen erakusketa ikustera ere «molako artistak!» zioten askok.

250 lagun bazkarian

Eta goiz guztia erakusketa egon ostean, bazkaria izan zuten erretiratuek Txermingo ikastolako itzalean. 250 lagun inguru bildu ziren, tartean ziren Bakartxo Telleria alkatea eta Udaleko beste ordezkariak ere. Luisa Ezenarro, Biltoki elkartearen lehendakariaren esanetan, «ongi doa eguna, bazkarian ere lagun ugari bildu gara eta oso gustura gaude».

Baina bazkarikoa bota behar eta dantzaldia izan zuten erretiratu guztiek Txermingen bertan. «Arratsalde guztian arituko gara dantzan», zioten.

Baina ez ziren jubilatutako izan festaz gozatu zuten bakartxoak. Plazan, haurrentzako eskulenen eta Sum magoa izan ziren, haur ugari bildu zen plazan. Eta arratsaldetik aurrera, Joko-Garbi pilota partidak edota Eresargi txiki abesbatzaren kantaldia ikusteko aukera izan zuten billabonatarrek.

Gaur deskantsu eguna izango da santiotan. Bihar berriz, eguerdian haur jolasak izango dira Errebote plazan eta arratsaldean haur txirindularitza jaialdia Olaederra-Aroa inguruan, erraldoien eta buruhandien irteera, futbito txapelketaren finala plazan. Gauean disko festa izango da plazan eta DJ Jaia Otsabiko parkean.



Bazkaria. 250 lagun inguru bildu ziren atzo jubilatuen bazkarian, bertan egon ziren Udalen ordezkariak ere. Bazkariaren ondoren dantza ugari egiteko asmoa azaldu zuten bazkaltzen egon ziren erretiratuek, «arratsalde guztian ariko gara dantzan», zioten. G. AZKUE



Erakusketa. Makilak, egurrezko gauzak, margolanak eta apaingarriak zeuden Berdura plazako erakusketa. Hamar postu jarri dituzte aurtun goiz guztian zehar. G. AZKUE



Eskulenen. Gurasoak inguruan zizutela haurrek askotariko eskulenen egin zituzten Sum magoa agertu bitartean. Apaingarriak edota marrazkiak egin zituzten. G. AZKUE



Haurrak. Herriko haurrek eskulenen egiteko aukera izan zuten Errebote plazan. Haurrekin batera, gurasoak ere plazan pasatu zuten goiza. Eskulenen ondoren, Sum magoa ikusteko parada izan zuten bertaratu ziren txikiak. G. AZKUE

ARTEKARITZA • ASESORANTZA

IRAOLA

BERRIA, 58
20150 Villabona
Tel.: 943 69 27 63
Faxa: 943 69 27 74

MIGUEL-MARU

Ondo pasa jaiak!

FRUTATEGIA

Kale Berría, 13 • BILLABONA
943 69 21 50

Janari Denda

Pepi

Ondo pasa Santiotan!

Berría, 56
20150 BILLABONA
Tel. 943 69 16 38

Etxeko Barazki eta Fruituak

JAIK ▶

Abuztuko jaietako hainbat egitarau osatuta daude

Abuztuaren 6an hasiko dira Ikaztegiako San Lorentzo jaiak eta 14ean Orendaingo Andra Mariak; hemen, abuztuaren 8an Umeen Eguna izango da

OLAIA ESKITXABEL

Abuztuan jairik jai ibiltzeko aukerarik ez da faltako; eskualdeko herri askotako egitarauak prest daude dagoeneko. Hori da Orendain eta Ikaztegiaren kasua.

Ikaztegiako San Lorentzo jaiak abuztuaren 6an (ostirala) hasiko dira; ohi bezala, kontzertu garrantzitsua antolatuta dute jaiak hasiera emateko: Agaotz, Stupenda Jones, Brigada Criminal eta Eraso taldeak entzuteko aukera izango da.

Abuztuaren 11 bitarte luzatuko dira jaiak eta tartean atse-den hartuko dute egun batez, abuztuaren 9an, alegia.

Ohiko ekitaldien artean berrikuntzarik ere aurkitu daitezke; urteroko plater tiraketaren ordez galeperren tiraketa antolatuta du Urtxori elkarteak abuztuaren 7rako. Egund berean, herri-afaria egingo da; bertara joan nahi dutenek abuztuaren 2a baino lehenago eman dezakete izena Ostatu eta Toki-Alai tabernetan. Bestalde, jubilatuen bazkarirako izen-ematea

ere zabaldu dute; adinekoek udaletxean eman dezakete izena abuztuaren 4a baino lehenago.

Abuztuaren 14tik 16ra izango dira Orendaingo Andra Mari jaiak; baina aurretik, abuztuaren 8an, Umeen eguna egingo da. Iazko abenduan egindako Artisten Egunean haurren erantzuna ikusita, gaztetxo artistei berriro ere marrazkiak egiteko gonbitea lutzuko diete. Ondoren, goizean zehar egindako marrazkien erakusketa jarriko da ikusgai udaletxean.

Gaztetxoan Txapelketa

I. Trikitilari Gaztetxoan Txapelketa egingo dute Orendainean Andra Mari egunean, abuztuaren 15ean. Bertan, sei bikotek hartuko dute parte: Asier eta Oroitz Unsain anaiek, Joseba Letamendiak eta Oihana Garmendiak, Xabier Etxanizek eta Ainara Saizarrek, Raket eta Itsaso Pagoagak, Eneritz Bengoetxeak eta Edurne Errandoneak eta Jagoba Urangak eta Jon Belokik.



Gaztetxo artisten lanak udaletxean jarriko dituzte ikusgai. O.ESKITXABEL

Maila ezin hobeia izango da txapelketan; sei bikoteetatik hiru Euskadiko Txapelketako finalean aritukoak dira. Epaimahaia Edurne Iturbe eta Oihana Irastorza adituek osatuko dute eta aurkezle lanetan Martxel Ansa ariko da.

Txapelketan ezezik, egunean zehar ere trikitixa entzuteko parada izango dute bertarazten direnek. Alaitz eta Olatz Zarauzko trikitilariak arratsal-

dean eta gaur partean egingo dute saioa.

Andra Mari jaietan, bestalde, Gipuzkoako udalderriak deritzon kutxak sustatutako erakusketa jarriko dute udaletxeko areto nagusian. Hiru egunetan egongo da zabalik: abuztuaren 8an, 12:00etatik 13:30era, abuztuaren 15ean, 12:00etatik 14:00etara eta abuztuaren 16ean, berriz, 13:00etatik 14:00etara.

EGITARAUAK ▶ IKAZTEGIETA ETA ORENDAIN

IKAZTEGIETA

Abuztuak 6. Txupinazoa.
19:15. Buruhandiak.
23:00. Agaotz, Stupenda Jones, Brigada Criminal eta Eraso taldeen kontzertuak.
Abuztuak 7.
16:00-18:00. Galeperren tiraketa kolonbaire makinaz Istingorri baserrian.
15:30. Haur jolasak.
17:00. Poniak eta xexen txikiak.
21:00. Herri afaria txiste kontalariekin.
23:00. Nekin taldea.
Abuztuak 8.
11:00. Meza nagusia.
Ondoren, dantza saioa.
18:00. Pilota partidak.
23:00. Bertsolariak pilotaleku zaharrean.
Ondoren. Estanga anai-arrebak goizaldera arte.
19:00. Txupinazoa.
Abuztuak 10.
11:00. Meza nagusia.
Ondoren, Donato Goienetxe

Perkusio taldea pilotaleku zaharrean. Jarraian, txakoli dastaketa.
16:00. Popi eta Zaratrako pailazoak.
18:00. Herri kirolak.
Iparraldeko eta Hegoaldeko probak: trontza, soka-tira, jungura jokoak, lasto altzari...
22:00. *Euskera sencilloaren manifestoa* antzezlanak kiroldegian.
23:00. Triki Ta Ke taldea
Abuztuak 11.
11:00. Meza nagusia.
11:30- 13:30. Jolas parkea.
12:30. Paella dastaketa.
14:00. Adinekoen bazkaria Herrigintza elkartearen. Ondoren, mus eta toka txapelketa.
15:30-18:30. Jolas parkea.
20:00. Sardin-jatea Begiristain sagardoarekin.
23:00. Ainara eta Miren trikitilariak.

ORENDAIN

Abuztuak 8.
10:00. Gaztetxo artisten

topagunea herriko plazan. Tartean, gosaria artistentzat.
11:30. Pottokak.
12:30. Buruhandi-kalejira.
13:00. Goizean egindako marrazkien erakusketa udaletxean.
16:30. Herri kirolak gaztetxoan artean; ondoren, haur jolasak eta merienda.
19:30. Sardina erreak plazan.
Abuztuak 14.
20:00. Kalejira, Saioa, Aladier eta Lutxordio trikitilariekin.
21:15. Kostiala-jatea plazan.
23:30. II. Lau t'erdiko Pilota Lehiaketaren lehenengo saioa.
Ondoren, bertakoentzako txinga proba.
Ondoren. Erromeria Aladier eta Lutxordio trikitilariekin.
Abuztuak 15.
10:00. Suziriak eta buelta kanpaiak.
11:00. Meza nagusia.
12:00. Txakolin dastaketa.
13:00. II. Toka Txapelketaren lehen eguneko saioa.
19:00. Orendaingo I. Trikitilari Gaztetxoan Txapelketa.

20:30. Alaitz eta Olatz trikitilari saioa.
23:00. II. Lau t'erdiko pilota lehiaketaren finala.
Ondoren. Alaitz eta Olatz trikitilari saioa goizaldera arte.
Abuztuak 16.
10:00. Suziri eta buelta kanpaiak.
11:00. Meza nagusia herriko hildakoen alde.
12:00. Txirrindulari lasterketa.
13:30. Sari banaketa.
Ondoren, Iker Zubeldia eta Ibon Urdangarin bertsolariak.
14:00. Herri-bazkaria.
15:30. Gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak eta mini Quads motorrak.
18:30. Bertakoentzako II. Toka Txapelketaren azken saioa.
Ondoren, sari-banaketa.
20:30. Patata-tortila labeldunaren lehiaketa.
22:30. Ezein taldea.
24:00. Harriari buelta emango zaio.
03:00. Baratzuri zopa Eltxoak elkartearen.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald.:461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdik)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Santa Maria, I., Nafarroa etorbidea, 2. (Tolosa) 65 46 10.
Erbiti, O., Lizarraga, 7. (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aiztondo. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ETXEBIZITZA

Tolosa. Etxebizitza erosi nahi da Tolosan; gubxienez, 100 m2 eta igogailuarekin. Inmobiliariak ez ditu. 677 000 005/943 67 10 20.

LAN ESKAINTZA

Etxeko lanak. Neska bat behar da goizetan haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko (Irailaren 1etik aurrera). Telf: 605 73 21 55.

IBARRA ▶ JAIK

Sokatira apusturako entrenatzen

Hauspoa-Ibarra, Ibarako Gazteak, Belauntza eta Izaskun ariko dira lehian

DANI GIBELALDE

Gazte Festetan neskek hasitako tiraldiari heldu nahi diote mutilek sanbartolomeetan. Herriko neskek lehenengoz egin zuten sokatira apustua, eta orain mutilei sartu zaie horretarako grina. Hala, mutilen sokatira apustu polita ikusi ahal izango da San Bartolome plazan abuztuaren 22an.

Neskek Gazteluko jaietan ere egingo dute sokatira erakustaldia, hain zuzen, abuztuaren 15ean. Neskak nahiz mutilak, astelehenetik ostiralera, entrenatzen ari dira Belabieta kiroldegian. Apusturako ez ezik, afizioagatik ere bai. Afiziotik ofiziora agian ez, baina profesionaletan edo federazioan sartutako talde bat sortzeko asmoa badute. Donostiako talde batean sokatiran aritzen

den Lander Oterminek ekarri zuen sokatirarako materiala, eta herritarrek gogo handiz heldu diote erronkari.

Lau talde ariko dira

Mutilen apustuari dagokionez, lau talde ariko dira aurrez aurre: Hauspoa-Ibarra, Ibarako gazteak, Izaskungo eta Belauntzako bana; zortzi lagunek osatuko dute talde bakoitza, denek 680 kilotik igaro gabe.

Talde guztiek elkarren aurka jokatu dute; lehiakide bakoitzaren aurka bi tiraldi izango dira. Bi taldeen artean tiraldi bana irabazten duenak puntu bat izango du, eta biak irabazten dituenak, berriz, hiru. Puntuak batuta, gehien biltzen dituenak jantziko du txapela. Ondoren, afaltzeko elkartuko dira denak.



Neskak. Gazteluko jaietan erakustaldia egingo dute, abuztuaren 15ean, hain zuzen. HITZA



Hauspoa-Ibarra eta Izaskun. Egunero dabil jendea entrenatzen Belabieta kiroldegian. HITZA

LEABURU ▶ IRTEERA

Larresoroko Harrizko Zubiko bazkarira joateko irteera, igande honetan

Euskalgintzaren alde lan egiten duen Ote Lore elkarteak 20. urteurrena egingo du

D. GIBELALDE

Urtero bezala, Larresorora joateko aukera izango dute leabuarrek igandean, Ote Lore elkarteak antolatutako Harrizko Zubiko bazkarira.

Euskal kultura eta hizkuntzaren alde lan egiten duten elkarteak da Ote Lore, eta aurten bere 20. urteurrena egingo du. Antolatzaileek «egun goxo bat

pasatzera gonbidatu» nahi dituzte herritarrek, «leku eta giro zoragarri batean». Irteerara joateko izen ematea udaletxean egin daiteke, 943-67 59 31 telefonora deituta. Prezioa 20 eurokoa da helduentzat, eta 10 eurokoa gazteentzat.

Autobusa izango da igandean Larresorora joateko. 10:00etan Txaramatik irtengo da, eta 10:15ean Leaburutik.



Larresorokoak apirilean izan ziren Leabururik. HITZA

Eguerdian zintzur bustitzea izango da, eta bazkaria 13:30ean. Entsalada, paella, ardi gasna, udare tarta, kafea, eta ondokoa izango da bazkalteko. Era berean, egun guztian

zehar kantu eta dantza ugari egiteko aukera izango da, Sukapil eta Ezteki taldeek alaituta. Mutxikoak, erromeria... izango dira. Talo-jatea ere bai, 19:00etatik aurrera.

IBARRA ▶

Apatta auzoan ubide proiektua aztergai gaur udalbatzarrean

D. GIBELALDE

Gaur 18:00etatik aurrera udalbatzarra izango da udaltxean. Besteak beste, honako gaiak aztertuko dituzte: Apatta auzoan Apatta ubidea beste era batera bideratzeko proiektuari behin betiko onespina ematea; uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzen duen ordenantza; San Ignazio auzoko haur eskolaren kontuen urteroko kitapena egiteko Udalaren konpromisoa, eta bi mozio.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



LEITZA ▶ INGURUMENA

Plazaolako trenbidea erabiltzeko araudia argitaratu da berriro

Batez ere motorrezko ibilgailuek egiten duten erabilpen desegokiarengatik, Patzuergoak ordenantza betearaziko du

JAIONE ASTIBIA

Plazaola Patzuergoak orain berriro, Plazaolako Bide Berdearen erabiltzenerako ordenantzak argitaratu ditu, bide horretan zehar ibiltzen diren zenbaiten aldetik egiten den erabilpen desegokiak bultzatuta eta horien aurka, neurriak hartzeko oinarritzeko pauso modura.

Plazaolako trenbide zahararen ibilbidea berreskuratu zenez, 2003ko maiatzean ireki zen Leitzaldeko zatia, «jendearentzat aisialdirako gune natural eta kultur ondare modura, probetxu ateratzeko helburuz» egin zela zioten Patzuergotik eta horrelaxe jasota geratu da, orain argitaratu dituzten ordenantzetan ere. Bere garaian, Plazaola Patzuergoak eta zegokien udalerriek, bide honen erabiltzenerako arauak adostu zituzten, ingurunea, eta ahal zela bertako biztanleen ohiturak ere, errespetatu eta, beti ere, bide berdearen ezaugarriak eta erabilerak kontutan hartuz.

Ezaugarri nagusiak aipatuz, Plazaolako Bide Berdea oinezkoentzat eta zikloturistentzat (10 Km/h ko abiaduraz behetik ibiliz) bideratuta dago soilik: motordun ibilgailuek debekatu dute bertatik ibiltzea —horretarako baimen berezia duten auzotarrek izan ezik— eta aziendak ere ezin dira bertan ibili, ez eta tunelak babes bezala, abarorako edota gaua igarotzeko erabili, inolaz ere. Pasa edo zeharka dezakete, beste aukerarik ezean, udal-baime-



Moldatu zenez geroztik jarrita daude seinaleak, baina dirudieneg, askorentzat ixuratarako besterik ez dute izan behar. J. ASTIBIA.

na eskura duten kasuan bakarrik.

Neurriak hartuz

Bestelako ohiko arauekin batera, «guztiak ere zentzuzkoak direla iruditzen zaigu, baina ikusi dugu ez direla errespetatzen eta egunetik egunera, esaterako ibilgailu gehiago dabilela bidean barrera, bi perrilla, nahiz lauko motoak, asko, eta abiadura bizian gainera eta zenbait kasutan argirik gabe zirkulatzen dute tuneletan zehar, oraindik ere, lehenaz gain, benetako arriskuak eraginez», zioten Patzuergotik arduratuta eta kezkatuta.

Hori dela eta, «eta behartuta», adierazten zuten, neurri zorrotzak hartzeari ekinen dio-

te aurrerantzean. Lehen pauso modura, bidea ireki zenez geroztik martxan dagoen araudi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dute eta, orohar, interesa duen guztiari, Plazaolako Bide Berdearen erabilpen egokirako ordenantzak dioena jakinarazi.

Horrela, aurrerantzean, arau hausteren bat egiaztatzen denean, zaintzako arduradunen esku, zein dagokion udal, nola Patzuergoak berak ere «bide berdean burutuak egiteko edo ez-egiteko arau-hausteengatik, ardura zibila esijitze-ko», ahalmena dutela dio ordenantzak eta isunak jartzekoa, berriz, lekuan lekuko udalei dagokiela.

«Zentzuz ibiltzea bezalako-rik ez legoke», zioten.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Ehun bat lagun biltzeko itxaropena dute elkartekoe. J. ASTIBIA

Santa Krutz ermitako erromeria igandean da

Meza entzun eta ondoren, atariko pagadian, bazkaria eta giro alairik ez da faltako

J. ASTIBIA

Igandean, abuztuak 1, eginen da Santa Krutzeko erromeria, han bertako pagadian. Egungo etxetik kanpora egiteko aitzakia polita, mendia eta paraje zabalak gogoko izanez gero behinik behin. Eta egurradiak laguntzen badu, are hobe.

Erromeria, Santa Krutzeko ermitan meza entzunez hasiko dute bertara bildutakoek. Hori eguerdian, 13:30ean izanen da. Ondoren mahaiaren inguruan bilduko dira bazkaltzera, norberak eraman dituen jaki gozoekin goseari aurre eginez. Esan behar da otodurako edariak, postrea eta kafea, han bertan, doan banatuko direla, antolatzaileen kontura.

Eta bazkari onari zor zaion legean, ondoren kantari eta dantzari aritzeko aukerarik ez da faltako «iaz musika aparailu bat eraman genuen eta jendea, doinuak entzun orduko, dantzari hasi zen», zioten antolatzaileek eta hau ikusirik,

aurten ere gauza bera egin behar omen dute.

Festa hau Leitzako Jubilatuko Elkarteak antolatzen du, elizbarrutiaren laguntzaz. Berak jartzen ditu bazkal ondorengo beharrezko osagaiak eta baita, noski, mahaiak eta aulkiak ere «egoitzakoak berak igotzen ditugu, herritar baten erremolkean», argitu zuten. Garraio kontuen harira, «jende ezindua bertara eraman ahal izateko, mendiko ibilgailuak dituztenei laguntza eskatzen zaie» elkartetik eta adierazi dutenez, joan nahi eta bertara oinez iristeko zailtasunak dituzten lagunek, izena ematea, komeni omen da. Hori egoitzan bertan egin behar omen da, «garraiorako beharrezko diren ibilgailu kopurua erabaki eta gero bilatzeko», zehaztu dute.

Erromerian parte hartzeko deia herri osoari egin zaio «zahar eta gazte, haur eta guruso», diotenez. Eta oso kome-nigarritzat jotzen dute, erromerira oinez joatea, bidea ahalik eta librean egon dadin.

iragarki laburrak ▶



Aia. Solairu bakoitzean 250 m² duen baserria, kapritxoz berritua, 61.000 m²-ko lur saila, bi etxebizitza egiteko aukera.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Anoeta. 2 eta 4 logelako etxebizitza berriak.

Anoeta. Etxe duplexean, garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, oso argitsua eta garabiarekin.

Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²-

ko apartamentu berriak, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza, Colon pasealekuan, bista zoragarriak dituen eta berritua.

Donostia. Garibai kalean 32 m²-ko bulegoa alokairuan, 1. solairuan.

Gaintza (Nafarroa). 3 solairuko baserria salgai; berrikuntza behar du.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza.

Lehenengo pisua. Kanpoaldera.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso

eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ibarra. 75 m²-ko pabiloia salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursailarekin.

Irura. 52 m²-ko apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan kokatua.

Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.

Lasarte. 75 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera, egoera onean.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia

salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berriak.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloia, eraikuntza berrikoa.

Segura. 60 eta 90 m²-ko bi etxebizitza salgai.

Tolosa. Errementari kalean berritua dagoen etxebizitza salgai, 2. gela, egongela-sukaldea, bainugela eta trastelekuarekin.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.

Tolosa. Arantzazura urteroko erromesaldia egingo dute larunbatean, uztailak 31. Joan nahi duenak izena San Frantzisko elizako atarian eman behar du.

Tolosa. Peñascal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du: Informazio gehiago nahi duenak: 943 67 61 61.

Tolosa. Tolosako Zentro Gerontologikokoek bihar Donostian, Foru Aldundiaren aurrean, (Gipuzkoa plazan) egingo duten kontzentrazioa autobusean joateko izena eman behar da gaur egoitzan bertan.

ERAKUSKETA

Aitzo. Aitzoko Erraldoia, Aitzo ezaguna egin duen gizona erakusketa haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago: 943 65 24 13.

JAIK

Villabona. Gaurko ez dago ekitaldirik iragarrita Santio jaietako egitarauan. Bihar, 11:30etik 13:30era haur jolasak plazan Oinkari dantza taldearen eskutik; 16:00etan haur txirriindularitza jaialdia Olaederra kiroldegian eta Arroa auzoaren inguruan; 17:30ean erraldoi eta buruhandien irteera; 18:30ean areto futbol txapelketaren finala plazan; 23:00etan Disko festa plazan; 00:00etan DJ jai Otsabiko parkean.

ZINE-KLUBA

Ibarra. *El club de la lucha* filma eskainiko dute bihar Gazteteko kideek udako zinema aire librean zikloaren baitan. Plazan, udaltxe ondoko frontoian izango da emanaldia, 22:00etan hasita. Egitaraua haien web orrialdean da: www.ibarrakogaztetxea.net.

Jazzaren aldeko otoitza

TOLOSA ▶ Donostiako 39. Jazzaldian eguraldi paregabea izaten ari dira egunerarte; Tolosako Santa Klara komentuko mojak dira horren arduradun



Santa Klara komentuko abadesa arrautza saskiarekin. I.ASENSIO

IÑIGO ASENSIO

John McLaughlin, Jan Garbarek, John Scofield, Carlinhos Brown, Ruben Blades, Steve Winwood... Donostiako Heineken 39. Jazzaldia osatzen duten musikarietako batzuk besterik ez dira. Bereaiek punta-puntako musikariak direla ez da eztabaida dai-tekeen zerbaít, baina ziurrenik, beraien handitasun horretan, ez dira inguratzen dituen guz-tiaren jabe.

Susmorik ere ez dute izango, baina, baliteke, aurtengo Jazzaldian izaten ari diren eguraldi paregabea kasualitate hutsa ez izatea. Agian, jazza benetan senti dezakeenarentzat eguraldia ez da musikaz gozatzeko baldintza izango, baina egia da bestalde, askorentzat, jendearen gehiengoarentzat ziurrenik, zer egin erabakitzerakoan kontuan hartzen den lehen gauza eguraldia izatea. Horrela izan edo ez izan, antolakuntzak nahiago izan du badaezpada, bere esku duen guztia egitea, eta horregatik jo dute Tolosako Santa Klara komentuko mojangana. Bertan frailearen dozena arrautz batzuk jarri, 13ko dozenak alegia, eta mojek eguraldi ona izan dadin egiten dute otoitz. Nahiz eta beti lortzen ez duten, egun hauek otoitza baliagarria izaten ari dela dirudi.

Jazzaldiko prentsa arduradunaren hitzetan, «Jazzaldia egiten hasi zen urtetik jarraitzen den tradizioa da, aurre-rantzean ere egingo duguna. Aurtengoan oso emaitza ona ematen ari da; horrela jarraitzea espero dugu»

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Noa Gaztañaga Oiarbide (Tolosa).
Gaztañaga-Oiarbideitar Noa naiz. 12 egun ditut eta hau da nire lehen argazkia.



URTE ASKOAN
Oier Zaldúa (Amarotz).
Gaur 11 urte. Etxekoan partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!